

**MAHAIN INGURUA:
KULTURA ESKUBIDEAK ETA TOKIKO GOBERNANTZAK**

**KULTURA ESKUBIDEAK ETA EUSKAL KULTURA:
BIDEGURUTZEAREN ARRAKALAK
Iratxe Retolaza**

**Baiona, 2022ko ekainak 23
EUSKO IKASKUNTZA**

**“Kultura eskubideak: parte-hartzea eta
gobernantzaren politikak” proiektua**



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

KULTUR POLITIKAK: PARADIGMA ALDAKETA BATEN ATARIAN (I)

- ❖ **Kulturaren demokratizazio estrategiaren porrota, eta mendebaldeko kultur politikak eta kultur ikuspegiak homologatu nahi izateak euskal kulturari eragindako albo kalteak.**

“XX. mendean osasunerako eta hezkuntzarako eskubidea pertsonen berdintasunari laguntzeko funtsezko politikak izan baziren ere, XXI. mendean kultur politikek funtsezko ekarpena egin behar dute desberdintasunaren aurkako borrokan eta herritarren eskubideak eta aukerak zabaltzen”.

Fem Cultura. Pla de Drets Culturals de Barcelona
(Ajuntament de Barcelona, 2021).



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

KULTUR POLITIKAK: PARADIGMA ALDAKETA BATEN ATARIAN (II)

- ❖ Garapen jasangarriaren erronka berpiztu izana, eta tokiko politiketan izandako eragina.

Kulturarentzako Agenda 21 dokumentuak munduko hiri eta tokiko gobernu askoren atxikimendua izan du eta kultur eskubideak giza eskubideen parte banaezin direla aldarrikatzen da. 2015en lanerako dokumentu bat prestatu zuten, *Kultura 21: ekintzak* (UCLG - United Cities and Local Governments, 2015).



EUSKO
IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

KULTUR POLITIKAK: PARADIGMA ALDAKETA BATEN ATARIAN (III)

- ❖ **Kultura eta arteen gehiegizko erabilera instrumentala, eta kulturaren autonomia eta kulturaren balio eraldatzaileak kontuan ez hartu izana.**

“Herritartasun kulturalak eskubideak, askatasunak eta erantzukizunak dakartza berekin. Bizitza osoan unibertso kultural eta sinbolikoa eskura edukitzea eta unibertso horretan parte hartu ahal izatea funtsezkoa da sentsibilitate, hautaketa, adierazpen eta jarrera kritikorako gaitasunak garatzeko”.

Kultura 21: ekintzak

(UCLG - United Cities and Local Governments, 2015).

KULTUR POLITIKAK: PARADIGMA ALDAKETA BATEN ATARIAN (IV)

❖ Kulturaren ikuspegia birpentsatzeko premia, baita euskal kulturaren inguruko imajinarioak eta ideologiak berritzeko premia ere.

“kulturei buruzko gairik garrantzitsuena ez da beren iraganaren ondarea, baizik eta beren orainaren sormen- eta asmatze-gaitasuna (...) gizarte batean jende gehienak kultur forma berriak sortzen parte hartzeko eskura dituen baliabideena”.

Venturelli (2003, Pascual & Dragojevic, 2007-en aipatua)



EUSKO
IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

KULTUR POLITIKAK: PARADIGMA ALDAKETA BATEN ATARIAN (V)

- ❖ Euskararen lurraldea eragin-gune nagusi, eta epe luzerako kultur planak eta kultur politikak elkarlanean diseinatzeko premia.

Euskal kulturak eta komunitateak joko-zelai konplexua dute: hiru administrazio-esparru, bi estaturekiko menpekotasuna, Internet eta diaspora. Gainera, hizkuntza politikek alde batetik jo dute, eta duela gutxira arte kultur politikek beste alde batetik jo dute, ez da elkarren arteko hartu-emanik edo ikuspegi partekaturik garatu.



EUSKAL KULTURAREN ESPARRUA TRINKOTZEA ETA PARTE-HARTZE KULTURALA SUSTATZEA

- ❖ Euskal kulturaren jarduna ulertzeko kultur ikuspegiak sendotzea eta kultur ikuspegiak berritzea.
- ❖ Kultur eragileen arteko saretzeak sendotzea.
- ❖ Kulturzaleen arteko saretzeak sendotzea.
- ❖ Sortzaileen arteko saretzeak sendotzea.
- ❖ Epe luzeko eta arnas luzeko kultur plangintza adostua garatzea.
- ❖ Euskal kulturaren adierazpideei, ikuspegiei eta premiei erantzungo dieten legeak zein araudiak egituratzea.



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

ESKERRIK ASKO!

Iratxe Retolaza
(txeretolaza@hotmail.com)